

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEAN GRADU AMAIERAKO LANAK EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA

«**Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari buruzko Arautegia**» da Euskal Herriko Unibertsitateko ikastegietan Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeko aplikatu beharreko arau orokorra (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 12an onartua eta 2015eko apirilaren 13an argitaratua, 67. EHAAn). Honela dio 1.4 artikuluan:

Fakultate edo eskoletako batzarrek arautegi hau garatu ahaliko dute ikastegi bakoitzean ematen diren graduako titulu bakoitzaren ezaugarrietara moldatzeko. Edonola ere, ikastegi bakoitzak zehazten dituen arauak ikastegiko batzarrean onartu eta ikastegian bertan argitaratu behar dira.

Indarrean dauden arauei jarraikiz, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Batzarrak, 2022ko maiatzaren 18ko bileran, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean Gradu Amaierako Lanak Egin eta Defendatzeari buruzko Arautegi hau onartu zuen.

1. artikulua.- Arautegiaren xedea eta izaera.

1.1.- Arautegi honen xedea da Gradu Amaierako Lana (GRALa) egin eta aurkezteko UPV/EHUk daukan arautegi orokorra garatzea eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko graduetara egokitzea, UPV/EHUren arautegi orokorra beti izango den arren nagusi. Helburua da jarraibideak ematea fakultate honetako graduetako GRALak zehazteko, egiteko, defendatzeko, lanok kalifikatzeko eta horretarako gutzirako egin beharreko administrazio izapideetarako.

1.2.- Arautegi honen edukia, besteak beste, ebaluazio sistemaren, kredituen transferentzia eta aitortpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin osatuko da.

1.3.- Ikastegiko Batzarrak, edozein unetan, arautegi hau aldatu ahal izango du edo arau osagarriak eman.

2. artikulua.- Gradu amaierako lanaren izaera.

2.1.- Gradu Amaierako Lana gauzatzeko, ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar du, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduako ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortutako ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.

2.2.- GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta, oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiarri edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezen.

2.3.- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan, Ekonomiako Graduan, Marketineko Graduan, Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Graduan eta Negozioen Kudeaketako Graduan GRALa nahitaezko irakasgai bat da, laugarren mailako bigarren lauhilekoko, eta 12 ECTS balio du.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzean bi GRAL egin behar dira bosgarren mailako bigarren lauhilekoan, bata Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradukoa eta bestea Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradukoa, biak ere 12na ECTSkoak.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako + Zuzenbideko Graduan ikasleek bi GRAL egin behar dituzte: bata Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradurakoa, 12 ECTS kreditukoa, eta bestea Zuzenbideko Gradukoa, 6 ECTS kreditukoa. Bi GRALak seigarren mailako lehen lauhilekoan egin behar dituzte.

Double Bachelor's Degree in Business and Economics delakoan ikasleek bi GRAL egin behar dituzte bosgarren mailako lehen lauhilekoan, bata Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradukoa eta bestea Ekonomiako Gradukoa, biak 12na ECTS kreditukoak.

3. artikulua.- Gradu Amaierako Lanen Batzordea.

GRALen batzorde bat sortuko da atal bakoitzean eta egoitzan. Batzorde bakoitzaren osakideak izango dira: atalari edo egoitzari atxikitako graduen koordinatzaileak eta GRAL moduluko koordinatzaileak, halakorik balego, gestioko teknikari bat eta kasuan kasuko ataleko edo egoitzako ikasleen ordezkari bat. Batzordeko burua ataleko koordinatzailea izango da atalen kasuan, eta dekanoa egoitzako batzordean, edo haiek beren ordezkari izendatzen dituzten pertsonak.

Arautegi honetan zehaztutako eginkizunez gain, batzordearen ardura izango da GRALaren inguruan sortutako gorabehereri buruzko erabakiak hartzea, beste organo baten eskumenen arlokoak ez badira.

4. artikulua.- Matrikula eta deialdiak

4.1.- GRALerako matrikula unibertsitateko matrikularako epe orokorraren barruan egingo da, fakultateak urte bakoitzean ezartzen dituen epe zehatzetan. Horretarako, dagozkion prezio publikoak ordaindu beharko dira, GRALak esleituta duen kreditu kopuruaren arabera.

Atal bakoitzeko eta egoitzako batzordeek, gainera, matrikularako bi epe zehaztuko dituzte, otsailan eta ekainean, lehen eta bigarren lauhilekoetako ohiko deialdiko azterketen ostean. Ikasleak epe horietan matrikulatu ahal izango dira GRALean, arautegi honetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

4.2.- GRALerako matrikula egiteko ezinbestekoa izango da gaia eta zuzendaria esleituta izatea eta ikasketa plana amaitzeko falta diren irakasgai guztiak matrikulatuta edukitzea, hau da, titulazioa amaitzeko falta diren kreditu guztiak, salbu eta, gehienez ere, aitortuak izan daitezkeen hautazko kredituak: 24 kreditu EAZko, Ekonomiako eta Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko graduatan, hamazortzi kreditu Marketineko Graduan eta sei kreditu Negozioen Kudeaketako Graduan.

4.3.- Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialera aurkezteko, atal bakoitzean eta egoitzan ezarritako egutegi akademikoari jarraituz. Lana kasuan kasuko ikasturteko deialdietan aurkeztu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.

4.4.- Ikasleak matrikulan zehaztuko du GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duen. Hizkuntza bat etorri beharko da GRALaren esleipenean agertzen denarekin eta GRALerako izena ematean aukeratu zuenarekin, salbu eta ikasleak eta bere zuzendariak aurretik hizkuntza aldatzeko eskaria aurkeztu badiote GRALen Batzordeari eta batzordeak onartu.

4.5.- Ikasleak ikasketa amaierako ezohiko deialdia baliatu ahal izango du, horretarako baldintzak betetzen baditu, bai arautegi honetan zehaztutakoak eta bai Ekonomia eta Enpresa Fakultateak ikasketa amaierako ezohiko deialdirako zehaztuta dituenak.

5. artikulua.- Zuzendaria

5.1.- Sailak edo titulazioko moduluak egin behar ditu berak parte hartzen duen graduetak GRALerako proposamenak. Ikasturte bakoitzeko martxoan GRALen Batzordeak kalkulatu du hurrengo ikasturtean gradu bakoitzean eta gradu bikoitz bakoitzean zenbat GRAL egingo diren, eta ikastegiari atxikitako gradu bakoitzeko sail edo modulu bakoitzari adieraziko dio zein kopuru

dagokion.

Zuzenbide Fakultateari eta Arabako Ingeniaritza Eskolari jakinaraziko zaie guztira zenbat GRAL kalkulatu diren EAZ+Zuzenbideko Gradu Bikoitzerako eta EAZ+ KISIko Gradu Bikoitzerako, erabaki dezaten nola esleituko dizkieten, beren irizpideen arabera, Zuzenbide Fakultateko eta Arabako Ingeniaritza Eskolako sailei, hurrenez hurren.

GRALen batzordeek egindako estimazioa eta banaketa Egoitzako Batzordeak eta ataletako batzarrek onartu beharko dute.

5.2.- Aurreko puntua betetze aldera, urriaren 1a baino lehen sailek edo titulazioko moduluek GRALen Batzordeari bidaliko dizkiote atal bakoitzaren eta egoitzaren proposamenak, honako hauek zehaztuta: lanaren gaia, zuzendaria edo zuzendarikideak eta lana zein hizkuntzatan egin daitekeen. Proposamen horiek bermatu egin beharko dute bete egingo direla GRALa erkidegoko hizkuntza ofizialetan (gaztelania eta euskara) zein atzerriko hizkuntza batean egiteko eskariak. Zerrendan ikasle batekin hitzartutako lanik badago, adierazita agertu behar da ikaslearen izena. GRAL proposamenen zerrenda urriko lehen astean argitaratuko da.

5.3.- Gradu Amaierako Lanaren zuzendaria izango da graduan eskolak ematen dituen sail bateko irakaslea edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitakoa.

5.4.- Gradu Amaierako Lanak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.

5.5.- Unibertsitatearekin lotura duten beste doktore batzuek ere zuzendu ahal izango dituzte GRALak, baldin eta 5.3 artikuluko baldintzak betetzen badituzte.

5.6.- GRALa hizkuntza ofizialez bestelako batean egiteko, zuzendarikide edo tutorekideak, halakorik balego, horretarako hizkuntza gaitasuna izan beharko du, UPV/EHUk egiaztatuta.

5.7.- Ikasleak GRAL osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, erakundeen arteko lankidetzeta edo praktika hitzarmen baten bidez, GRALa unibertsitateaz kanpoko pertsonak zuzendu ahalko dute, betiere, goi mailako tituludunak badira. Gainera, kasu horretan, 5.3 ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide bat egon beharko da.

5.8.- Ikasleak Erasmusen edo beste mugikortasun programa baten babesean egiten badu GRALa, beste unibertsitateko irakasle bat izango da zuzendaria, eta, ahal dela, mugikortasun programen ardura daukan dekanordea izango da. Fakultateak aldebiko hitzarmen zehatzik baldin badauka beste zentro batekin, agiri horretan zehaztutakoari jarraituko zaio.

5.9.- Zuzendariaren ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak bete egiten direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta GRALen Batzordeari lana aurkeztu aurretik emango zaion txostena idaztea ere. Zuzendariak bere ustez egoki diren ohar guztiak jasoko ditu txostenean.

5.10.- GRALeko zuzendaria izendatu ondoren, zuzendaria behin betiko bajaran badago edo epe luzerako, GRALen Batzordeak beste zuzendari bat izendatuko du hamar eguneko epean, ikasleak edo sailak horren berri eman dionetik kontatzen hasita. Ordezkoa izendatzeko xedez, batzordeak kasuan kasuko sailari eskaria egingo dio adierazitako epe horretan ordezkoa proposa dezan.

6. artikulua.- Epaimahaia

6.1.- Epaimahai bakoitzean hiru kide titular eta gutxienez ordezko bat egongo dira, guztiak ere gradua ematen den ikastegiko irakasleak.

Gradu bikoitzetan, bi lanen gaiak erlazionaturik badaude, ikasleak GRALen Batzordeari eskatu ahal izango dio epaimahai bakar bat eratzea bi GRALetarako. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako + Zuzenbideko Gradu Bikoitzean edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzean, epaimahaian egongo dira Ekonomia eta Enpresa Fakultateko bi irakasle eta Zuzenbide Fakultateko edo Arabako Ingeniaritza Eskolako irakasle bat, eta, gutxienez ordezko bat fakultate edo eskola bakoitzetik.

6.2.- Epaimahai bakoitzean epaimahaiburua bat eta idazkari bat egongo dira. Epaimahaiburua eta idazkaria izendatzeko irakasle kategoria eta antzintasuna hartuko dira kontuan. Batak eta besteak beren karguen arabera jardungo dute beti. Epaimahaiburua kategoriarik handienekoa izango da edo kategoria berean antzintasun handiena daukana; idazkaria, berriz, kategoriarik txikienekoa edo kategoria horretara oraintsuen sartu dena.

6.3.- Atal bakoitzeko eta egoitzako GRALen Batzordeak eskaria egingo die sailei edo titulazioko moduluei (halakorik balego) epaimahaietarako kideak proposa ditzaten beren irakasleen zuzendaritzapean ikasleek gradu bakoitzean egindako lanak kalifikatzeko. Proposamen horiek GRALen Batzordeari bidali beharko zaizkio lana aurkezteko epea hasi baino hamabost egun lehenago gutxienez. GRALen Batzordeak epe horretan proposamenik jaso ezean, berak aukeratu ditu zozketaz epaimahaikideak, kasuan kasuko saileko edo titulazioko moduluko irakasleen artean.

6.4.- Epaimahaiko kideek ezin izango dute izan laugarren mailako baino gutxiagoko odol ahaidetasunik edo kidetasunik ikaslearekin. Horrelakorik suertatuz gero, epaimahaikidea abstenitu egin beharko da eta horren berri eman beharko dio GRALen Batzordeari izendapena hartu eta bi eguneko epean. Kasu horretan GRALen Batzordeak beste irakasle bat izendatu beharko du, saileko edo titulazioko moduluko irakasleen artean zozketa eginda. Bestalde, gauza bera gertatuko da epaimahaikidea eta ikaslea senar-emazteak badira edo, horren pareko harreman afektiboa izanik, elkarrekin bizi badira.

6.5.- Edozelan ere, epaimahaiko kideak izendatzean, kontuan izan behar da epaimahaia gai izan behar dela autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, zein eskaintzan jasotako atzerriko hizkuntzetan, egindako lanak ebaluatzeko.

6.6.- Hizkuntza ofizialez bestelako batean egindako GRAL bateko epaimahaian egoteko, beharrezkoa izango da horretarako hizkuntza gaitasuna izatea, UPV/EHUk egiaztatuta.

7. artikulua.- Lanerako gai eta zuzendaria esleitzea

7.1.- Lanerako gai bat esleitzen denean, ikasleak titulazioko 180 kreditu izan beharko ditu eginda gutxienez, graduako oinarritzko gaien modulua barne.

Gradu bikoitzetan kreditu kopuru hauek izan beharko ditu gaitasunak gutxienez: 324 kreditu Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako + Zuzenbideko Gradu Bikoitzean, 210 kreditu Double Bachelor's Degree in Business and Economics-en, eta 288 kreditu Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradu Bikoitzean, kasu guztietan bi graduetako oinarritzko gaiak barne.

Ezinbestekoa izango da gradu amaierako lan bat esleitura izatea matrikula egin ahal izateko.

7.2.- GRALa esleitzeko bi modu daude:

- adostasunez

Sail bakoitzeko eta egoitzako GRALen Batzordeak bi epe jarriko ditu ikasleek doan eman dezaten izena GRALerako: ohiko epea, irailean. eta ezohikoa, otsailean. Ikasleak aukera izango du bere proposamena aurkezteko horretarako dagoen eredia erabili. Bere proposamenean honako

hauek jaso behar ditu: lanaren gaia, zein hizkuntzatan egingo duen eta lana zuzenduko duen irakaslearen konpromisoa (irakasleak, betiere, 5. artikuluko baldintzak bete beharko ditu). Horrez gain, proposamenak irakaslearen sailaren oniritzia izan behar du. GRALen Batzordeak lanak banatzerakoan erabakiko du proposamena onartzen duen edo ez.

Batzordeak proposamena onartuz gero, lan hori zuzenean esleituko zaio ikasleari, eta ez dute deituko lanak banatzeko egingo den deialdira. Proposamena onartzen ez bada, gai bat esleituko zaio, hurrengo atalean azalduko den prozeduraren bitartez (eskaintza irekiaz).

Edozelan ere, ezohiko epean adostasunez esleitu diren GRAL proposamenek ez dute ekarriko sailen eskaintzatik gairik erretiratzea.

- **Eskaintza irekiaz**

Sail bakoitzeko eta egoitzako GRALen Batzordeak bi epe jarriko ditu ikasleek doan eman dezaten izena GRALerako: ohiko epea, urrian. eta ezohikoa, otsail/martxoan, GRALa adostasunez esleituta ez daukaten ikasleei lanak esleitzeko. Ikasleek, ezarritako epearen barruan, adieraziko dute zeintzuk gai interesatzen zaizkien eskaintza irekian proposatutako gaien artetik.0} Gero gaiak esleituko zaizkie, matrikula egiteko momentuan daukaten batez besteko nota kontuan hartuta.

Ikasleak esleipenaren kontrako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Akademia Antolakuntzako Batzordeari erabakia argitaratu eta hamabost eguneko epean. Batzordeak hamabost eguneko epea izango du errekurtsioa ebazteko.

7.3. Hizkuntza ofizialez bestelako batean GRALa egiteko, ikasleek B2 maila izan beharko dute egiaztatuta hizkuntza horretan GRALerako izena emateko momentuan.

7.4.- GRALerako gaiaren eta zuzendariaren esleipenak bi urteko iraupena izango du; epe hori behin igarota ikasleak lanarekin eta zuzendariarekin jarraitzeko eskaria egin ahal izango dio GRALen Batzordeari, zuzendariak horretarako beren-beregiko baimena emanda. Horrela egin ezean, ikasleak berriro eman beharko du izena, eta gaia eta zuzendaria esleitzeko prozeduran parte hartu.

7.5.- Bi urteko epe horretan GRALen Batzordeak zuzendaria aldatzeko eskaria onartu ahal izateko, beharrezkoa izango da izendatuta dagoen zuzendaria eta zuzendari berria aldatetarekin ados egotea, bai eta ikaslea bera ere.

8. artikulua.- Gradu Amaierako Lana gordailuan uztea eta defendatzea

8.1.- GRALa ezin izango da defendatu aurretik matrikulatu ez bada, ikastegiak horretarako ezarritako epeetan.

8.2.- Lana defendatu ahal izateko, ikasleak aurretik ADDI gordailu instituzionalean utzi behar izango du, ikastegiak edo atalak horretarako zehaztutako datetan.

8.3.- Epaimahaiko kideei GRALaren ale bat eta zuzendariaren txostena bidaliko zaizkie.

8.4.- Ikasturte bakoitzean bi deialdi egongo dira GRALak defendatzeko: uztailean (ohikoa) eta urrian (ezohikoa) graduatarako eta EAZKISIlrako eta otsailean (ohikoa) eta uztailean edo urrian (ezohikoa) EAZUZEN eta EAZEKO gradu bikoitzetarako. Ikastegiko edo ataleko Gradu Amaierako Lanen Batzordeak zehaztuko ditu, ikasturte bakoitzaren hasieran, defentsa eskaria egiteko datak eta defentsarako datak deialdi bakoitzerako.

8.5.- Ikasleak publikoki eta aurrez aurre defendatuko du GRALa, lana idazteko erabili duen hizkuntza berean.

Aurrez aurreko defentsaren modalitatea GRALen Batzordeak erabakiko du.

9. artikulua.- Ebaluazioa eta kalifikazioa

9.1.- Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren txostena ikusitakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du, Gradu Amaierako Lanaren gidaliburuan argitaratutako irizpideen arabera eta titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoari jarraikiz.

9.2.- Ikasleak gaitzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.

9.3.- Epaimahaiak Otik 10era bitarteko zenbakizko eskala honen arabera emango du kalifikazioa, hamartar bakarrarekin, eta letraz ere adierazita:

0-4,9:	Suspentso (S).
5,0-6,9:	Nahiko (N)
7,0-8,9:	Oso ongi (OO).
9,0-10:	Bikain (B).

Deialdi batean lana aurkezteko eskubideari uko eginez gero, Aurkezteke jarriko da.

«Ohorezko matrikula» eman ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo handiagoa lortu duten ikasleei. Gehienez ere ikasturte horretan gai horretan matrikulatutako ikasleen ehuneko bostak lortu ahal izango du kalifikazio hori.

9.4.- Gradu Amaierako Lanaren azken kalifikazioaren berrikuspena edo erreklamazioa unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraikiz egingo da, baina epaimahaiak tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta ondoren, ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

9.5.- Gradu Amaierako Lanaren ebaluazioaren akta unibertsitateko ebaluazio arauari jarraikiz itxi beharko da eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala bete eta ikasleen idazkaritzara bidaltzea. Bestalde, ikastegiko zuzendariaren ardura da artikulua honetan jasotakoa bete egiten dela zaintzea.

9.6.- Nolanahi ere, GRALaren kalifikazioa urriaren 31 baino lehen agertu beharko da jasota ikaslearen espedientean.

9.7.- Lana plagiatu egin dela ikusiz gero, UPV/EHUko Ikasleen Arautegiko 67.2 artikulua edo horren ordezko araua ezarriko da.

10. artikulua.- Jabetza intelektuala.

Gradu Amaierako Lana jabetza intelektualari buruzko legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duena izango da, ikaslearen Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

Xedapen iragankorra

2021/2022 ikasturtean bai egoitzan eta bai ataletan aplikatuko dira arautegi hau onartu aurretiko GRALaren arautegiak, hau da, egoitzako batzordean eta ataletako batzordeetan GRALak egiteko eta defendatzeko onartu ziren arautegiak.

Xedapen indargabetzailea

Arautegi honek aurreko guztiak indargabetzen ditu, xedapen iragankorreetan ezarritakoa galarazi gabe. 0}

Azken xedapena

Arautegi hau 2022/2023 ikasturtean sartuko da indarrean.